



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

J.A. MUÑAGORRI HLHI

Ikastetxearen kodea:

012031

Data:

2023(e)ko ekainaren 13(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Berastegiko Eskola, eskola publiko euskalduna eta herrian dagoen bakarra da. Berastegi, euskara eta euskal kulturaren errota dagoen herri txiki bat da. Ikastetxea, nekazal eta natura ingurunean kokaturik dago, nahiz eta, ikastetxera datozen ikasleen familietako iturri ekonomiko nagusia nekazaritza ez izan.

Eskola honek, 2 urtetik 12 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu, 100 ikasle inguru ditugularik eta gela berean zenbait adineko ikasleak daude. Horregatik, elkarrengana eta lankidetzara modu naturalean ematen dira eta aniztasun honetan harremanak aberastu egiten dira.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastetxeak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen azpiegiturak ditu, hau da:

- Sare lokala.
- Wifi sarea ikastetxeko espazio guztietan.
- Proiektorea eta arbel digital interaktiboa duten ordenagailuak gela gehienetan.
- Ordenagailuak irakasleen lan-eremu guztietan: bulegoetan, irakasleen gelan, ..
- Informatika gela bat 10 ordenagailurekin hornituta dago.
- Ikasleek Hezkuntza Departamentuak mailegatutako gailu digitala dute (chromebook).

Horretaz gain, hemen zerrendatzen ditugu erabiltzen ditugun hainbat baliabide:

- Google Workspace for Education plataforma dugu eta haren zerbitzu guztiak ditugu (posta elektronikoa, disko birtuala, ikasteko ingurune birtuala...).
- Irakasle guztiek eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek ere, kontu korporatiboa dute Googleren plataforma honetan.
- **PYCTO** Idazketako **plataforma digitala** erabiltzen dugu, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara arteko hizkuntzetako curriculumak lantzeko.
- **MATIFIC**, matematika gaitasuna lantzeko **baliabide digitala** erabiltzen dugu 3.zikloan.
- Lehen Hezkuntzan, **BLOK-TAC** proiektuan parte hartzen dugu, ikasturtean zehar bi egiten ditugu (**BLOK** egitasmo pedagogiko bat da, non derrigorrezko eskolaldiaren curriculumak eguneratzeko oinarriko konpetentziak txertatzen diren) eta hori guztia, **SITES** batean jasota daukagu <https://sites.google.com/site/blokmunagorriberastegihlh/>.
- Lehen Hezkuntzako 3. mailan, Gamifikazioaren bitartez, mekanografia ikasteko **KLUPPY aplikazioa** erabiltzen dugu.
- Sare sozialetan **TWITTERREKO** kontua dugu (@Munagorrieskola) eta eskolako komunitatearekin eta herriarekin zerikusia duen informazioa zabaltzen dugu.
- Liburutegian dauden liburu guztien digitalizazioa egin dugu.

- Eskolako familiekin elkar komunikazioa mantentzen dugu, zuzenekoaz gain, bakoitzak duen helbide elektronikoarekin: Eskola Kontseiluko en akten berri emateko, tutoreak gelako ikasleen gorabeheren berri emateko, ...



Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Gure plan digitalak bi ildo nagusi ditu:

Alde batetik, 2022-2023 ikasturtearen antolaketa Hezkuntza sailburuordearen ikasturte hasierako ebazpenak eskatzen du ikastetxe guztiek Ikastetxearen Proiektu Digitala garatzea. Hura, ICParekin lerrokatuta joango da ebazpenak eskatzen duen bezala. Horretarako, digitalizazio batzorde bat osatuko da IPDaren egite prozesua dinamizatzeko eta koordinatzeko.

IPDaren garapena Europako hiru erreferentzia markotan oinarrituta egongo da:

- DigComp
- DigCompEdu
- DigCompOrg

Bestetik, gizartean izandako aldaketa eta aurrerapenak kontutan hartuz, eta Curriculum-ean aipatzen den kompetentzia digitala funtsezko esparrua izanez, J.A. Muñagorri eskolatik aterako diren ikasleak digitalki jantziak izatea nahiko genuke.

Beraz, IPDaren helburu nagusia teknologia digitalak eguneroko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan integratzea eta horren kontzientzia hartzea da.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Digitalizazio-plana egiteko faseak honako hauek izango dira:

- Europako Batzordeak ikastetxeko IKT Batzordeak sortutako SELFIE diagnostikorako tresna bateratzea eta egokitzea.
- Egoeraren diagnostikoa SELFIE duen ikastetxeko digitalizazio-prozesuetan.
- Irakasleen gaitasun digitalaren diagnostikoa SELFIE for teachers tresnarekin.
- Digitalizazio-plana egitea, helburu orokorrak eta espezifikokoak ezarrita, baita denboralizazioarekin eta lorpen-adierazleekin garatu beharreko zereginak ere.
- Digitalizazio-plana garatzea.
- Digitalizazio-plana ebaluatzea.

Lantaldea ikastetxeko, IKT Batzordeak, zuzendaritza-taldea eta IKT arduradunak osatuko dute.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Ikastetxearen Plan Digitalak bat etorri behar du datorren testuinguru instituzional zabalenarekin. Beste dokumentu instituzional batzuetan jasota dago, hala nola, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan eta Ikastetxearen Urteko Planean, eta dokumentu hauek guztiz bat etorri behar dute eta osagarriak izan behar dute.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Bai ikastetxearen digitalizazio-egoeraren azterketa egiteko, bai digitalizazio-plan hau egiteko, funtsezko erreferentziatzat hartzen dugu [Digitalki Konpetenteak diren Hezkuntza Erakundeetarako Europako Esparrua \(DigCompEdu\)](#). Esparru hori Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (JRC, Joint Research Centre) garatu du, eta zentroaren azterketa bat proposatzen du, 7 elementutan oinarrituta: Azpiegitura, Lidergoa, Garapen Profesionala, Ebaluazioa, Edukiak eta Curriculum, baita Laguntza eta Lankidetzaren Sareak ere.

Azterketa hori egiteko, Europako Batzordeak garatutako SELFIE autoebaluazio-tresna erabili dugu, egoerari buruzko txostena ematen duena.

SELFIE (ingelesez «hezkuntza-teknologia berritzaileen bidez berrikuntza sustatuz ikaskuntza eraginkorrari buruzko autohausnarketa» esan nahi duten siglak) doako tresna bat da, ikastetxeei teknologia digitalak ikaskuntza eraginkorra eta berritzailea lortzeko nola erabiltzen dituzten planteatzen laguntzeko helburua duena.

SELFIE-ak modu anonimoan biltzen ditu ikasleek, irakasleek eta zuzendaritza-taldeak ikastetxean teknologia erabiltzeko moduari buruz dituzten iritziak. Horretarako, galdera eta enuntziatu laburrak eta balorazio-eskala sinple bat erabiltzen dira. Enuntziatuak, besteak beste, lidergoa, azpiegiturak, irakasleen prestakuntza eta ikasleen gaitasun digitalak hartzen dituzte.

SELFIEk autodiagnostikorako aurkezten dituen galdetegiak hiru motatakoak dira, norengana jo nahi dugun. Hiru galdera-sorta horiek oinarritzko galdera batzuk dituzte (nahitaezkoak edo finkoak), zortzi jarduera-eremu komunean antolatuta:

A arloa: lidergoa

B arloa: kolaborazio eta sareak

C arloa: azpiegiturak eta ekipamendua

D arloa: etengabeko prestakuntza profesionala

E arloa: pedagogia: laguntza eta baliabideak

F arloa: pedagogia: ikasgelan aplikatzea

G arloa: ebaluazio-jarduketak

H arloa: ikasleen konpetentzia digitalak

Ondoren, AMIA azterketa bat egingo dugu, alde aurreko ebaluazio horrek eta digitalizazio-planak berak eskaintzen dizkiguten aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak aztertzeko.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Ikasleen arteko elkarlana.

Nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa.

Denbora falta edo lehentsasunak ondo ez adieraztea.

Azpiegiturak onak diren arren, gabezi batzuk daude: gailuak, interneta,...

Laguntza tekniko mugatua.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Gaur egungo erabilpena gehiegizkoa eta desegokia da.

Hezkuntzaren araudien aldaketak.

Finantzazioa aldakorra.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Elkarlana.

Irakasle on maila digitala egokia da ikastetxean egiten denarekin.

Ikasleek duten pertzepzio positiboa.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Hornidura teknologikoa oso ona da gure eskolan.

Hezkuntzak digitalizazioaren inguruko eskaintako formakuntza.

Ikastetxeko Digital plan berria.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

- Elkarlana.
- Hornidura teknologiko bikaina.
- Gure maila egokia da eta bat dator egiten dugunarekin.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

- Ikasleen arteko elkarlana.
- Nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

- Gaur egungo gehiegizko eta erabilpen desegokiari aurre egiteko, ikasleekin landuko dira baliabide desberdinen alderdi positiboak eta negatiboak.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

- Ikasleen elkarlana bultzatzeko, ikas-egoerak eskainiko dizkiegu ikasleei.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Digitalizazio batzordea sortzea arduradunak eta zereginak zehaztuz; eskolan estrategia digital sendo bat bermatzeko.

Deskriptorea

LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza

Epea

2023-2026

Adierazlea

Mota

Helmuga

LG 1.3 A3 Ikastetxeak batzorde bat eta koordinatzaile bat ditu estrategia digitala garatzeko, eta haren f

Bai/Ez

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Ikasturtero, batzordeko partaideen funtzioak eta zereginak zehaztu.	Bilera	Digitalizazio batzordea	2023- 2026	Detektatua
2. Ikasturtero, digitalizazioaren hausnarketa egin.	Bilera	Klaustroa	2023-2026	Detektatua
3. Klaustroari IPDaren aurkezpena egin eta onartu.	IPDa	Zuzendaritza	2023/06/29	Detektatua
4. Eskolako kontseiluan IPDaren aurkezpena egin.	IPDa	Digitalizazio batzordea	2023/06/29	Detektatua
5. Ikasturtero, batzordea osatu.	Bilera	Digitalizazio batzordea	2023/09/11	Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Curriculum berria kontuan hartuz, baliabide digitalak erabiltzea ikasleriaren beharrei hobeto erantzuteko eta sormena lantzeko .

Deskriptorea

II 2.5 Ikaskuntza pertsonalizatua sustatzen da

Epea

2023-2026

Adierazlea

II 2.5 A2 Unitate didaktikoak garatu dira, ikaskuntzaren diseinu unibertsalaren printzipioekin bat datozi

Mota

Bai/Ez

Helmuga

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Curriculum proiektuan eta ikas-egoeretan konpetentzia digitalari lotutako jarduerak, baliabideak eta ebaluazioa irizpideak jaso.	Curriculum berria eta ikas-egoerak	Ikasketa burua Irakasleria	2024/06/30	Detektatua
2. Ikas-egoerak egin IDUa kontutan hartuz.	Ikas-egoeren txantiloak	Ikasketa burua Irakasleria	2026 ekaina	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua		
Eskola mailan, irakasle taldearen kompetentzia digitala garatzea, gaur egungo ikasleen beharretara hobeto egokitzeko.		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.1 Agerikoa da EGPren aldeko konpromisoa	2023-2024	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.1 A2 Irakasleen Harrera Planaren barruan, estrategia digitalarekin, baliabide digitalen erabilerarela	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Formazioa jaso irakasle taldearen garapen profesionalarekin teknologia digitalak eta pedagogia digitala integratuz.	Formazio saioak	Digitalizazio batzordea	2023-2026	Detektatua
2. Egungo baliabide digital egokien berri eman eta hauen praktika gelara eraman.	Formazio saioak	Digitalizazio batzordea	2023-2026	Detektatua
3. Ikastetxeko irakasleen ziklo bakoitzeko kompetentzia digitalaren profila zehaztu.	Curriculum berria Egindako dokumentua	Zuzendaritza taldea Digitalizazio batzordea	2023-2024	Detektatua
4. Irakasle berrien harrera planean eskolako alderdi digitalak bildu.	Harrera planaren dokumentua	Zuzendaria IKTko arduraduna	2024-2025	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
Teknologia berriak ebaluazio prozesuan integratzea, autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatzeko.		
Deskriptorea	Epea	
EJ 1.2 Ebaluazio batutzailea dibertsifikatzen da	01/01/2026	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.3 A1 Baliabide digitalen zerrenda egina dago	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Ikasturtero egindako zerrendaren berrikusketa eta eguneraketa.	Dokumentua	Digitalizazio batzordea	2023-2026	Detektatua
2. Ikasturte bukaeran ikasleen kompetentzia digitala erabiltzen diren jarduerak eta baliabideak zerrendatu.	Sortutako dokumentua	Digitalizazio batzordea	2023-2024	Detektatua
3. Ikasleen kompetentzia digitala neurtzeko erabiliko diren jarduerak eta baliabideak definitu.	Ebaluatzeko baliabideen dokumentua	Digitalizazio batzordea	2024-2025	Detektatua

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Curriculum berria oinarri hartuta, ikas-egoerak bultzatzea teknologia digitalek eskaintzen dituzten aukera pedagogikoak islatuz.

Deskriptorea	Epea	
EC 2.1 Irakasgaietan oinarritutako ikaskuntza beste era batera antolatzen da eredu integratuagoak sortzeko	2023-2026	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.1 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenare	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Ikasturtero, ikastetxearen curriculum-proiektuan ikasleen kompetentzia digitalaren irteera-profila berrikusi eta eguneratu.	EAEko Curriculuma Ikastetxeko curriculum proiektua	Digitalizazio batzordea	2023-2026	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Eskolako webgunearen erabilera hobetzea, hezkuntza komunitatearekiko bi noranzkoko komunikazioa egoki bideratzeko.

Deskriptorea	Epea	
EN 2.2 Agerikoa da online presentzia dinamikoa	2023-2026	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Eskolako webgune berria martxan jarri da	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Eskolako webgunea berritu.	Eskolako web orria	Zuzendaritza taldea IKT arduraduna	2023/09/10	Hasita (%1-19)
2. Eskolako webgunea eguneratuta mantentzeko formazioa jaso.	Klaustro osoa	Irakasleria	2023/09/14	Detektatua
3. Eskolako webgunea eguneraketa definitu eta mantendu.	Web orria	Irakasleria	2023-2026	Detektatua

Helburua

Ikastetxean ezagutza, informazioa eta baliabide digitalak partekatzeko plan bat ezartzea, beharrezkoak diren baliabideak definituz.

Deskriptorea	Epea	
EN 1.4 Ezagutza trukatzeko jarduera eta ekitaldietan parte hartzea sustatzen da	2025-2026	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.4 A1 Ikastetxeak eremu digitalean esperientziak trukatzeko jardunaldi batzuk planifikatu ditu, ingi	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Eremu digitaleko esperientziak trukatzeko bilerak planifikatu.	Formakuntzaren dokumentazioa	Digitalizazio batzordea	2025-2026	Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua

Eskolako hornidura teknologikoa egonkortu eta IKTko sailaren eginkizunak, ardurak eta beharrak definitzea lan jarduna sistematizatzeko.

Deskriptorea

AZ 2.10 Plan eragile bat dago ezarrita sare nagusirako eta IKTetako oinarrizko zerbitzuetarako

Epea

2023-2026

Adierazlea

AZ 2.10 A1 Ikastetxeak dokumentu bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabide digitalak I

Mota

Bai/Ez

Helmuga

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. IKTko irudiaren ardurak/zereginak sistematizatu.	Ikastetxearen dokumentua	Digitalizaio batzordea	2023/11/03	Detektatua
2. Irakasleen harrera-dokumentuan, gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko protokoloa jaso.	Harrera-dokumentua	IKTko arduraduna	2023-2026	Detektatua
3. Ikasleei ekipoak behar bezala erabiltzen irakatsi eta lagundu, eta egin behar dituzten zereginetarako erabiltzen badakitela ziurtatu.	Baliabide digitalak	Irakasleria	2023-2026	Detektatua

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG Digitalizazio batzordea sortzea arduradunak eta zereginak zehaztuz; eskolan estrategia digital sendo bat bermatzeko.	2023-2026 1. ekintza 2023-2026 2.ekintza 2023/06/29 3.ekintza 2023/06/29 4.ekintza 2023/09/11 IKASTURTERO 5.ekintza	Dokumentua Bileraren akta Bileraren akta Bileraren akta Dokumentua Dokumentua	Zuzendaritza Digitalizazio batzordea		
II Curriculum berria kontuan hartuz, baliabide digitalak erabiltzea ikasleriaren beharrei hobeto erantzuteko eta sormena lantzeko .	2024/06/30 1. ekintza 2026 ekaina 2.ekintza	Dokumentua	Digitalizazio batzordea		
GP Escola mailan, irakasle taldearen kompetentzia digitala garatzea, gaur egungo ikasleen beharretara hobeto egokitzeko.	2023-2026 1. ekintza 2023-2026 2. ekintza 2023-2024 3. ekintza 2024-2025 4. ekintza	Bileraren akta Bileraren akta Sortutako dokumentua Harrera plana dokumentua	Digitalizazio batzordea		

EJ	Teknologia berriak ebaluazio prozesuan integratzea, autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatzeko.	2023-2026 1. ekintza 2023-2204 2. ekintza 2024-2025 3. ekintza	Dokumentua Dokumentua Ebaluatzeko balibideen dokumentua	Digitalizazio batzordea		
EC	Curriculum berria oinarri hartuta, ikas-egoerak bultzatzea teknologia digitalek eskaintzen dituzten aukera pedagogikoak islatuz.	2023-2026 1. ekintza	Irteera profilaren dokumentua	Digitalizazio batzordea		
EN	Escolako webgunearen erabilera hobetzea, hezkuntza komunitatearekiko bi noranzkoko komunikazioa egoki bideratzeko.	1. FASEA: 2023ko iraila 1. ekintza 2023-2024 2. ekintza IKASTURTERO 2023-2026 3. ekintza	Web orria Jasotako formazio sailoaren akta Web orria	Zuzendaritza taldea Irakasleria		
EN	Ikastetxean ezagutza, informazioa eta baliabide digitalak partekatzeke plan bat ezartzea, beharrezkoak diren baliabideak definituz.	2025-2026	Bileraren akta	Digitalizazio batzordea		
AZ	Escolako hornidura teknologikoa egonkortu eta IKTko sailaren eginkizunak, ardurak eta beharrak definitzea lan jarduna sistematizatzeke.	1. FASEA: 2023 1. ekintza IKASTURTERO 2023-2026 2. eta 3. ekintza	Egindako txantiloia Kontrol zerrenda	Digitalizazio batzordea		
IB						